

TOMAS ALBA PLAZAKO PROIEKTUAK GELDITU IZANAREN **INGURUKO MOZIOA**

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du Tomas Alba plazako proiektuak gelditu izana dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoetako Batzordean 2015ko urriaren 19ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Nestor Basterretxearen Bakearen Usoa Amara Berritik Saguesera eraman zenean, aurreko Udal Gobernuak ingurunea hobetzeko apustua egin zuen. Urbanizazio proiektua egin eta onartu zuen, baina, nahiz eta aurrekontua izan, Udal Gobernu berriak ez du lizitatu.

Kirol pista lekuz aldatu behar zenez, Mantenimenduko Departamentuak *Donostia kirolarekin bat eginez* proiektua eta obra zibila aurrera atera zituen. Gaur egun, pista berria eginda dago, baina ekipamendurik gabe; hau da, hutsik dago. Bestalde, gune berean, kirol makinak jarri gabe daude, nahiz eta auzokideek eskatu egin zituzten.

Beraz, gune honetan egin beharrekoak geldiarazi egin ditu Udal Gobernuak. Zinegotzi ordezkariak, Gurpegi jaunak, batzordean esan zuen gunea aztertzen ari zirela, baina xehetasun gehiagorik eman ez zuenez eta, donostiarren kaltetan, erabakirik hartu gabe noiz arte egongo garen ez dakigunez, hau da nire

MOZIOA

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Tomas Alba plazako kirol ekipamenduak jartzeari eta berritu behar den urbanizazioari lehentasuna eman eta aurrera eraman dezala donostiarren onurarako.

Donostian 2015eko urriaren 23an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia